

Espediente mota: Administrazio kontratazioa. Prozedura irekia.

Kontratua: FORMAZIORAKO AHOLKULARITZA PROSPEKZIOA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK BURUTZEKO ZERBITZU KONTRATATAZIOA. LEHIAKETA PROZEDURA IREKIA.

Espediente zenbakia:

KONTRATAZINO MAHAIAREN BILKURAKO AKTA

1) **Bilkurari buruzko datuak**

- Bilkura eguna: 2016-06-13
- Ordua: 18:04
- Lekua: Intxausti kalea 2-ko azken solairuko batzar gelan.
- Kontratuaren xedea: FORMAZIORAKO AHOLKULARITZA PROSPEKZIOA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK BURUTZEKO ZERBITZU KONTRATATAZIOA. LEHIAKETA PROZEDURA IREKIA. PLIKAK IREKITZEA.
- Jardunbidea eta esleipen modua: Prozedura irekia.
- Hedabidea eta argitarapen ofizialaren data: BAO/BOB-ean 2016-04-22.

2) **Bertaratu diranak**

- . Mahaiburua: NAIA BILBAO URIARTE A^a
- . Mahaikideak:
 - JUAN CARLOS AGIRRE SANTAMARIA zinegotzi J^a
 - IDOIA PLATAS ARENAZA zinegotzi A^a
 - JON GOIKOLEA OJINAGA zinegotzi J^a
 - KARMELE MUÑO A ARRIGAIN A^a Jarduneango Udal Idazkaria.
 - Mahaiko idazkaria: NESTOR LARRUZEA ORMAZA J^a
- Beste batzuk:



- **Bilkuraren edukia eta erabakia**

Udal Idazkaria dan Karmele Muñoa andreak, gaiaren azalpena emoten dau, espedientearen nondik norakoak azalduz.

Laburbilduz, kontratazio honetara aurkeztu diran enpresen B) GUTUNAZALA irekitzeko deitu da batzarra.

Horren aurretik, aurreko batzarrean A) Gutunazalean detektatutako akatsak zuzentzeko emondako hiru (3) laneguneko epearen barruan aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, GEHILAN 2000 enpresak ez dauzala akats guztiak zuzendu eta ondorioz, euren partehartzea bertan behera gelditzen dala ohartaraziten dau Udal Idazkariak.

1.- GEHILAN enpresa: A) gutunazalean detektatutako akatsa zuzentzeko 2016-05-25eko 6672 sarrera erregistro data eta zenbakiagaz aurkeztutako dokumentazioa irekita, ondorengo agiriak falta dira:

Administrazio-Balditzetako **17. artikuluan "kontratatze gaitasuna eta kaudimena"** zehazten diren ondorengo dokumentuak ez ditu aurkeztu edota aurkeztu arren, ez dabe beharrezko epeak kreditatzen:

- Laneratze agentzia izatea eta **4** urteko esperientzia.
- 5 urteko esperientzia enpresei zuzendutako europar proiektuetan; hau da, enpresen lehiakortasuna hobetzeko, edota informazioko teknologien erabilera bultzatzeko (Adibidez, Mikrogunea, Valora izeneko proiektuak)
- Lanbidek, azken **3 deialditan**, diruz lagundutako Garapen Ekonomikorako eta Enplegua Sortzeko proiektu estrategikoak osotasunean kudeatzen esperientzia izatea. Diru laguntzaren eskabidea burutu, ekintzak martxan jarri, proiektuaren jarraipena, justifikazio ekonomikoa eta abar.

Ondorioz, GEHILAN enpresaren partehartzea bertan behera geratzen dala deklaratu, B) eta C) gutunazalak itzuli egingo jakoz ireki barik, baita behin-behineko bermea ere horrela bajagoko.





2.- DAITEKE enpresa: B) gutunazala "Dokumentazio Teknikoa" rena ireki da

ERABAKIA:

Guzti honen aurrean, kontratazio mahaiak zera erabaki dau aho batez:

1.- GEHILAN enpresari hiru(3) laneguneko epean aurkeztutako dokumentazioak ez dauala beharrezko kaudimena kreditatu eta ondorioz bere partehartzea bertan behera geratzen dala deklaratzeari.

2.- DAITEKE enpresak B) gutunazalean aurkeztutako Dokumentazio Teknikoa aztertu daiten eta jagokon txosten teknikoa burutzeko agintzeari.

Hurrengo batzarrean C) gutunazala irekitzeko izango dala jakinarazten da batzarkideei.

Bilkuraren gaia diran egitekoak amaituta, mahaiburuak 18:06 etan amaitutzat jo eban bilkura, eta mahaiko idazkaria nazan aldetik, bilkuraren akta egin dot.

MAHAIBURUAK

Izenpea

IDAZKARIAK

izenpea

